



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/08

Aldundiak "kalera aterako dau" Foru Liburutegia

Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur hasi ditue 2018ko Aurrekontuen Proiektuan Bizkaiko Foru Aldundiko Sail bakoxtari jagokozan kontuen barri emoteko saioak. Aurrekontuak azaltzeko txandea Ogasun eta Finantza, Euskera eta Kultura eta Gizarte Ekintza sailtako arduradunek hasi dabe gaur. Lorea Bilbao Euskera eta Kultura saileko arduradunak, bere sailaren helburua Foru Liburutegiaren eukietako batzuk "kalera ateratea" dala aurreratu dau, Bilboko Metroagaz, merkatariaz eta ostalariakaz lankidetzan. Liburutegira zuzendutako partidea "bikoiztu" egingo da, eragile horreekaz batera funts bibliografikoak zabaltzeko proiektua aurrera eroan ahal izateko.

José María Iruarrizaga Ogasuna eta Finantza saileko buruak, joan dan urriaren 31n Bizkaiko Batzarretan erregistrau zan Bizkaiko 2018ko Aurrekontu proiektuaren laburpena eginez hasi ditu Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeako informazino saioak. Aurreikuspenak beteten badira, tributu kontzertauak dirala eta Bizkaiko Ogasunak 7.813 milioi euro batuko ditu. Kopuru horretatik, 6.211 milioi erakundeakaz dagozan konpromisoak betetera bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzagaz, batez be, eta 1.602 milioi kudeaketa propiorako erabiliko dira, beharginen gastuak barru dirala. Diru gehien jasoko daben sailak, aurrekontuaren ia herena eroango dauen Gizarte Ekintza, 494,6 milioi eurogaz, eta 296 milioi jasoko dituan Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen saila izango dira. Bosgarren urtez jarraian, Aldundiak "zero" zorpetze garbia izango dau, amortizetan dan zor berbera jaulkiko dalako: 154 milioi euro.

OGASUNA ETA FINANTZAK

Ogasun eta Finantza sailak, bere aldetik, 125,4 milioi euro izango ditu 2018an, hau da, 2017ko aurrekontua baino %3,9 gehiago. Erdia baino gehiago beharginen gastuetara zuzenduko da, 68 milioi euro, hain zuzen be. Bolumenari jagokonez, horren ostean Lantik Foru erakunderako erreserbak datoz. Sailari euskarri teknikoak emoten deutzan enpresa informatikoak 31 milioi euro jasoko ditu aurrekontuetatik. Inbertsinoen atalean, azpimarragarriak dira Kaputxinoetako eraikina klimatizetako lanen jarraipena (2.640.000 euro erreserbau dira horretarako), eta 1.630.000 euroko aurrekontua izango daben Artxandako Jolas Parke zaharra eraisteko beharrak. Iruarrizagak jakinarazo dauenez, eraispen lan horretarako lehiaketa publikoaren argitalpena, Galdakaoko Udalaren aldetik obra baimena jasotearen "zain" dago.

Beharginen atalean, finantzetako 11 ikuskatzaile plaza gehiago hornitzea aurreikusten da, aurtan onetsi dan enplegu publiko eskaintzagaz bat etorriz. Aukeraketa proben deialdia 2018an izango da.

EUSKERA ETA KULTURA

Euskera eta Kultura sailari jagokonez, 2018. urterako 44.961.000 euroko aurrekontua izango dau, 2017an baino %3,05 gehiago. Euskera arloak 6.700.000 euro izango ditu (+%6,01); Kirolak 7.900.000 euro (+3%,50); Kulturak 27.905.000 euro (+%3,48); eta Zerbitzu Orokorrek 2.456.000 euro. Lorea Bilbao sail horretako arduradunak, Podemos Bizkaiaren galderei erantzunez, urriaren 31n 2017ko aurrekontuaren betete mailea "%76,30ekoa" dala esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bilbaok bere esku-hartzean azpimarratu dauenez, “%4,7” handituko dira Bizkaiko alkarte egiturara egingo diran ekarpenak, eta talentuaren sustapenak “%9,46ko hazkundera izango dau. Holan, Aldundiak Ertibil proiektua bultzatuko dau, gure artista gazteen artelanak Bizkaitik kanpora “eroateko”, euren lana ezagutuarazoteko helburuz. Foru erakundeak 2018rako daukan asmoa, gure lurraldean “ibiltaritz” proiektu bat aurrera eroatea be bada, kobazuloetako artea ezagutuarazoteko.

Halaber, Aldundiak “arreta berezia” eskiniko deutso 2018an itsasoko ondarea berreskuratzeari, 110.000 euroko partida berezia zuzenduz. Kulturguneen atalean, foru erakundeak Euskal Museoa barriztetako beharretan jarraituko dau, ekipamendu hori “euskal kulturaren erreferentzia” bilakatu daiten, Lorea Bilbao Euskera eta Kultura foru diputatuak azaldu dauenez. 500.000 euro inbertiduko dira proiektu museologikoa eta museografikoa egiteko eta bertan dagozan funtsetako batzuk kanpoan gordeteko.

Datorren urtean Ondarearen Urte Europarra ospatzera zuzendutako “ad hoc” partida bat egongo da. Partida horren bitartez hainbat jarduera indartuko dira, Ondarearen Jardunaldi Europarrak, ibilpide historiko eta artistikoak eta Museoen, Liburuaren eta Artxibategien Nazinoarteko Egunak, hain zuzen be.

Euskera eta Kultura sailean gehien haziko dan partidetakoa bat Foru Liburutegiari jagokona izango da, 1.003.000 euroko aurrekontuagaz, (aurton baino %46,20 gehiago). Aurrekontu horregaz, irakurketaren, ikasketaren eta ikerketaren arloko jarduerak sustatzeko, eta Foru Liburutegia Europako gune teknologikoetan lekutzeko beharretan jarraituko da. Barrikuntza moduan, Lorea Bilbao buru dan arloak proiektu “berezia” eroango dau aurrera, Foru Aldundia “kalera aterateko”, 112.000 euroko aurrekontuagaz. Liburutegi barruko jarduerak kanpoan be ikusi ahal izatea gura dau Aldundiak. Urtero 200.000 pertsonak bisitetan dabe ekipamendu hori, eta 500.000 sarrera digital inguru ditu.

Barrikuntzen artean, Bilbaok eskolako kirolaren gaineko “app” barria be aitatu dau, ehun kirol diziplina ingurutan Bizkaian kirola egiten daben 40.000 ikasleen senideek barrikuntzen gaineko informazioa jaso ahal daien, eguraldi txarraren inguruko oharrak zabaltzeko, batez be. Gainera, eta Ezkerraldeko udal batzuek batera aurrera eroandako esperientzia pilotuaren “arrakastea” ikusita, Aldundiak lurralde osora zabaldu gura dau “kirol txartela”.

GIZARTE EKINTZA

Arratsalde zuzendutako, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak datorren 2018ko ekitaldirako bere sailaren aurrekontuak aurkeztu ditu. Gizarte Ekintzako Sailak 494.594.000 euroko aurrekontua izango dau datorren urterako, Foru Aldundiaren sailek erabilgarri daukien aurrekontuaren %41,43 hartzen dauen zenbatekoa. Kopuru hori aurreko ekitaldikoa baino %4,56 handiago da.

Gizarte arloko politiken barruan, Gizarte Ekintzak pertsona nagusiengana zuzenduko dau erabilgarri daukan diruaren herena baino gehiago –173 milioi–. Urritasuna daukien pertsonen eskini beharreko arretaren arloan, aurrekontuen proiektuak 66.708.000 euroko gastua aurreikusten dau. Beste esfortzu handienetakoa bat mendekotasunerako prestazinoetara eta diru-laguntzetara zuzendutako gastuak ordaintzera bideratuko da: 88 milioi euro. Eta laugarren inbertsino esfortzua GUFira bideratuko da, 105,8 milioigaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, Bizkaian zaugarritasun egoeran dagozan pertsona guztien bizitza proiektuak aurrera eroan ahal izaten laguntzeko Aldundiak daukan konpromisoa azpimarratu dau: “Aurrekontu horregaz, umeak babestearen arloan dagozan gero eta behar handiagoi arreta eskintzen deutsegu, pertsona nagusientzako eta urritasuna daukientzako arreta zentroen sarea finkatzen dogu, urritasuna daben pertsonak euren ohiko ingurunean bizitza independentea izateko bizitza programen sustapena zabaltzen dogu eta Bizkaian 95.375 pertsonarengana ailegetan dan sare unibersala modernizetan jarraitzeko tresnak eskuratzen doguz”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
08/11/2017

La Diputación "sacará a la calle" la Biblioteca foral

Las Juntas Generales de Bizkaia han iniciado hoy las sesiones para informar de las cuentas asignadas en el Proyecto de Presupuestos de 2018 a cada Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia. Hoy abrían el turno de explicación los responsables de Hacienda y Finanzas, Euskera y Cultura, y Acción Social. En la segunda comisión del día, la titular de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha anunciado que su departamento pretende “sacar a la calle” parte de los contenidos de la Biblioteca foral en colaboración con Metro Bilbao, comerciantes y hosteleros. La partida dedicada a la biblioteca se “doblará” para desarrollar con estos agentes un proyecto divulgativo de los fondos bibliográficos.

El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha arrancado las sesiones informativas en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda realizando un resumen del proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2018 que fue registrado en la Cámara vizcaína el pasado 31 de octubre. Se estima que la hacienda vizcaína ingrese por tributos concertados 7.813 millones de euros. De este montante, 6.211 millones se apartarán para cubrir los compromisos institucionales, especialmente con el Gobierno vasco, y 1.602 millones serán utilizados para gestión propia incluyendo el apartado de gastos de personal. Los departamentos más beneficiados serán Acción Social que se lleva casi un tercio del presupuesto, o sea 494,6 millones, y Desarrollo Económico y Territorial, cuya consignación alcanzará los 269 millones. La Diputación volverá a tener, por quinto año consecutivo, un endeudamiento neto “cero”, ya que se emitirá la misma deuda que se amortice: 154 millones.

HACIENDA Y FINANZAS

Por su parte, el departamento de Hacienda y Finanzas contará en 2018 con 125,4 millones de euros, lo que representa un 3,9% más respecto al presupuesto de 2017. Más de la mitad se concentra en los gastos de personal que se llevarán 68 millones de euros. Le siguen por volumen las reservas para la entidad foral Lantik. La empresa informática que da soporte técnico al departamento se llevará de los presupuestos 31 millones de euros.

En el capítulo inversor, destacan la continuidad de las obras de climatización del edificio de Capuchinos para lo cual se han reservado 2.640.000 euros, y el derribo del antiguo Parque de Atracciones de Artxanda que contará con un presupuesto de 1.630.000 euros. Según ha confirmado Iruarrizaga, la publicación del concurso público de esta demolición está “pendiente” de recibir el permiso de obra por parte del ayuntamiento de Galdakao.

En el capítulo de personal se prevé la provisión de 11 nuevas plazas de inspectores de finanzas, que se corresponden con la oferta de empleo público aprobada este año. La convocatoria de las pruebas selectivas tendrá lugar en 2018.

EUSKERA Y CULTURA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, el Departamento de Euskera y Cultura dispondrá, para el año 2018, de un presupuesto de 44.961.000 euros, un 3,05% más que el año 2017. El área de Euskera contará con 6.700.000 euros (+6,01%); Deportes con 7.900.000 euros (+3,50%); Cultura con 27.905.000 euros (+3,48%); y Servicios Generales con 2.456.000 euros. La responsable de este área, Lorea Bilbao, a preguntas de Podemos Bizkaia, ha indicado que el grado de cumplimiento del presupuesto de 2017, a 31 de octubre, es del “76,30%”.

Bilbao ha resaltado en su intervención que se aumentará un “4,7%” las aportaciones al tejido asociativo de Bizkaia y se incrementarán en un “9,46%” la promoción del talento. En este sentido, la Diputación potenciará el proyecto Ertibil para “llevar” las muestras de nuestros jóvenes artistas fuera de Bizkaia con el objeto de dar a conocer su trabajo. La intención de la institución foral para 2018 es desarrollar también un proyecto de “itinerancia” por el territorio para dar a conocer el arte de las cuevas rupestres.

Asimismo, la diputación dedicará en 2018 “especial atención” a la recuperación del patrimonio marítimo destinando una partida específica de 110.000 euros. En el capítulo de los centros culturales, la Institución foral continuará trabajando en la renovación del Museo Vasco, a fin de que este equipamiento se convierta “en referencia de la cultura vasca”, ha explicado la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao. Se invertirán 500.000 euros en realizar el proyecto museológico y museográfico, así como en depositar en el exterior parte de sus fondos.

El año próximo habrá una partida “ad hoc” destinada a la celebración del Año Europeo de Patrimonio de 280.000 euros con la que se reforzarán actividades como las Jornadas Europeas de Patrimonio, los itinerarios históricos y artísticos, el Día Internacional de los Museos, del libro y de los archivos.

Una de las partidas que más crece en el área de Euskera y Cultura es el de la Biblioteca Foral, con un presupuesto de 1.003.000 euros (46,20% más que el presente año), con el que se seguirá trabajando para promover las actividades en torno a la lectura, el estudio y la investigación, así como para posicionar la Biblioteca Foral en espacios tecnológicos europeos. Como novedad, el área que dirige Lorea Bilbao desarrollará un proyecto “especial” para “sacar a la calle” la biblioteca foral con un presupuesto de 112.000 euros. La Diputación quiere que trasciendan al exterior las actividades internas de la Biblioteca, un equipamiento que es visitado anualmente por 200.000 personas y que cuenta con otras 500.000 entradas digitales.

Entre las novedades, Bilbao ha citado también una nueva “app” del deporte escolar para que los familiares de los 40.000 escolares que hacen deporte en Bizkaia, en un centenar de disciplinas deportivas, puedan estar informadas de las novedades, especialmente para lanzar avisos ante una climatología adversa. Asimismo, y debido al “éxito” de la experiencia piloto con algunos ayuntamientos de la Margen Izquierda, la Diputación pretende extender la “kirol txartela” por todo el territorio.

ACCIÓN SOCIAL

Ya por la tarde, la Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha presentado los presupuestos de su departamento para el próximo ejercicio 2018. El Departamento de Acción Social contará el año próximo con un presupuesto que asciende a 494.594.000 euros, una



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

cuantía que representa un 41,43% del presupuesto disponible departamental de la Diputación Foral. Esta cifra supone un aumento del 4,56% respecto al ejercicio anterior.

Dentro de sus políticas sociales, Acción Social invertirá más de un tercio de su disponible – 173 millones- en las personas mayores. En el ámbito de la atención a las personas con discapacidad, el proyecto presupuestario prevé un gasto de 66.708.000 euros. Otro de los grandes esfuerzos recaerá en cubrir los gastos en cuanto a prestaciones y subvenciones a la dependencia: 88 millones de euros. Y el cuarto gran esfuerzo inversor irá destinado a costear el IFAS con 105,8 millones.

La diputada de Acción Social ha hecho hincapié en el compromiso foral de apoyar el desarrollo de los proyectos de vida de todas las personas de Bizkaia en situación de vulnerabilidad: “con este presupuesto atendemos las necesidades crecientes en materia de protección a la infancia, consolidamos la red de centros de atención a las personas mayores y personas con discapacidad, ampliamos el alcance de la promoción de los programas de vida independiente de las personas con discapacidad en su entorno habitual y nos dotamos de herramientas para seguir modernizando una red universal que alcanza a 95.375 personas en Bizkaia”, ha dicho.